

DANBORRADA KO KARTEL LEHIAKETA – ELGOIBAR

Elgoibarko Danborrada Atabal Elkartek 2025eko Danborradaren kartela aukeratzeko deialdia egin du, ondorengo oinarrien arabera:

OINARRIAK

LEHENA.- Lehiaketa honetan 18 urtetik gorako edozeinek har dezake parte.

BIGARRENA.- Teknika librea izango da (argazkia, pintura, marrazkia, collagea, e.a.). Lanak euskarri gogorrean aurkeztuko dira.

HIRUGARRENA.- Lanaren neurria honako hau izango da: A 2 edo proportzionala.

LAUGARRENA.- Ezinbestekoa izango da ondorengo testua agertzea:

ELGOIBARKO 2025EKO DANBORRADA

Ekainaren 14an, 23:00etan

BOSGARRENA.- Saria **hirurehun eurokoa (300 €)** izango da, dirutan.

SEIGARRENA.- Lanak Aita Agirre kulturgunean, Kultura Sailean, aurkeztu beharko dira, **2025eko maiatzaren 15eko 13:00ak** baino lehen, osteguna.

ZAZPIGARRENA.- Lanak egilearen sinadurarik gabe aurkeztuko dira, eta atzeko aldean "leloa" eraman beharko dute. Honekin batera, kartazal itxi batean parte-hartzailearen datu pertsonalak eta NANaren fotokopia bidaliko dira, eta kartazalaren gainean lanaren "leloa" jarriko da.

ZORTZIGARRENA.- Saritu gabeko lanak epaimahaiaren erabakia jakinarazi ondoren jaso ahal izango dira. Horretarako, **hogeita hamar (30) eguneko** epea izango da. Aipatutako epean lanak jaso ezean, egileak galdutzat eman dituela pentsatuko du "Danborrada Atabal Elkartek", eta ondorioz, egileari inolako eskubiderik aitortu eta ordainik eman gabe, egoki irizten dion moduan erabiliko ditu.

BEDERATZIGARRENA.- Saritutako lana "Danborrada Atabal Elkarteen" esku geldituko da. Halaber, inprimatzeko, argitaratzeko eta ezagutarazteko eskubide guztiak "Danborrada Atabal Elkartek" berak izango ditu.

HAMARGARRENA.- Epaimahaiaren erabakia apela ezina izango da, eta saria banatu gabe gera daiteke. Erabakia hartuko den egun berean jakingo da epaimahaiaren nork osatuko duen. Epaimahaiak argituko ditu oinarri hauen inguruan sor daitezkeen zalantzak.

HAMAIKAGARRENA.- Lehiaketara aurkezteko, aurreko oinarri guztiak onartu behar dira.